


Eraikuntzaren sektoreak % 4,1eko igoera izan zuen 2019ko bigarren hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoan

2019ko lehen seiuhilekoari dagokion metatuan % 5,1eko hazkundera jaso da

Euskal Autonomia Erkidegoan, eraikuntzak urte arteko % 4,1eko igoera nominala izan zuen 2019ko bigarren hiruhilekoan, lan-egutegiko termino homogeneoetan, EUSTATEk landutako datuen arabera.

Eraikuntzaren sektorea hiruhileko honetan igo izanaren arrazoia da eraikuntzaren azpisektoreak izandako portaera positiboa (% 4,4 gora egin zuen), baita obra zibilaren azpisektorearena ere (% 2,5eko igoera).

Urtaroaren araberrako eraginak zuzendu ondoren, 2019ko bigarren hiruhilekoan, eraikuntzaren sektoreak % 2,5 gora egin zuen 2019ko lehen hiruhilekoaren aldean.



Hiruhileko artean, alderatuz gero sektoreak 2019ko bigarren hiruhilekoan izandako jarduera aurreko hiruhilekoan izandakoarekin, eraikuntzaren azpisektoreak % 1,9ko bilakaera positiboa ezarri zuen, eta obra zibilaren azpisektoreak, berriz, % 7,8 egin zuen gora.

2019ko lehen seiuhilekoaren guztizkoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren sektorea % 5,1 igo da 2018ko urtaldi berarekiko.

Eraikuntzaren sektoreko enpleguak % 1,5eko igoera izan zuen 2019ko bigarren hiruhilekoan, 2019ko lehen hiruhilekoaren aldean.

Eraikuntzaren koiunturaren IIIndizea. Euskal AE. Aldakuntza tasak (%). II/2019

	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	II 19/II 18	At/At-1 (1)	II 19/I 19	I 19/IV 18
Produkzioaren Indizea	4,1	5,1	2,5	-3,9
Eraikuntza	4,4	5,7	1,9	-3,5
Obra zibila	2,5	0,4	7,8	-6,4
Landunen Indizeak	-	-	1,5	0,4

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako IIIndizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62